



IRUÑERRIKO IBAI PARKEA

9 KONPROMISO



Mancomunidad
Comarca de Pamplona
Irueñerriko
Mankomunitatea

Herritarrek eskubide dituzten zerbitzuen eta kalitate-konpromisoen berri ematen dute zerbitzuen kartek, eta, hartara, herritar horiek laguntzea eta parte hartzea bultzatzen dute.

Iruñerriko Mankomunitatea

50 udalerrik osatzen duten tokiko erakundea da, eta ondoko zerbitzuak kudeatzen ditu: uraren ziklo integrala, etxebizitzetako hondakinak, eskualdeko hiri-garraioa, taxia eta Iruñerriko ibai-parkea. Zerbitzu horiek 369.000 biztanleri ematen zaizkie, eta helburua, betiere, haien premiak eta itxaropenak ahalik eta gehiena betetzea da.



EMATEN DIREN ZERBITZUAK

- Iruñerriko Ibai Parkea 30 kilometroko korridore berde bat da, Arga, Ultzama eta Elortz ibaien ertzean dago eta ipar-ekialdetik hego-mendebaldera zeharkatzen du Iruñerria, Soraurendik eta Iroztik Arazuriraino. Ibilbidean, Esteribar, Uharte, Egues, Ezkabarte, Atarrabia, Burlata, Barañain, Zizur Nagusia eta Oltzako Zendea (Arazuri) daude.
- Parkean, jolaserako eta aisiarako eremuak daude, eta haietan, hainbat altzari: iturriak, mahaiak, eserlekuak, haurrentzako guneak, erretegiak eta txakurrentzako guneak.
- 2007ko urtarrilaren 1az geroztik Iruñerriko Mankomunitatea arduratzen da parkea zaintzeaz eta dinamizatzeaz.

ARAUDIA

- Iruñerriko Ibai Parkearen eremua eta bai haren hirigintzako erregimena eta erabilera ere Nafarroako Gobernuak 1999ko urrian onartu zuen Udalez Gaindiko Plan Sektorialean zehaztuta daude. Hain zuzen, plan horretan, parkea erabilera eta titulartasun publikoko dotaziotzat jotzen da, eta jolaserako eta aisiarako erabiliko dela agintzen.
- Ibai Parkearen erabilera arautzeko ordenantza.



1

**IBAI PASEALEKUAREN GARBIKETA
ETA MANTENIMENDUA**

Parkea garbi dagoela eta mantentze-lan orokorrak egiten direla ziurtatzea, horretarako, zaborrak bilduta, eta landareak zaintzeko lanak (urtaro bakoitzari dagozkion lanak), zorua zaintzekoak eta beharrezkoak diren beste mantentze-lan batzuk eginda.

2

Parkeko altzariak eta dotazioak zaintzea (haurrentzako guneak, seinaleak, komunak, argiak, oinzubiak, iturriak...), etengabe berrikusita, ongi daudela ziurtatzeko edo erabiltzean segurtasunari kalte egiten dion edozein huts konpontzeko.

3

Uholdeak gertatzen direnean, haize gogorra dabilenean... gehienez ere bi eguneko epean, egoeraren balorazioa egitea eta ohiz kanpoko jarduketak egiteko ekintza-plan bat egitea.

4

**ONDARE HISTORIKOA ZAINTEA
ETA LEHENGORATZEA**

Ibai Parkean dagoen ondare historikoa, hala nola zubiak, errotak eta abar, zaintzeko eta lehengoratze-ko jarduketak gauzatzea.

5

**IBAI IBILBIDEEI LOTUTAKO LANDAREAK
ETA ANIMALIAK BABESTEIA**

Bioingeniaritzako jarduketak egitea (landare-mate-rial biziak eraikitze teknika), landatzeak, ereiteak, habiak jartzea... ibai-ekosistemen inguru-
men-kalitatea bermatzeko, babes berezia behar duten habitat berezi-bereziak baitira.

6

**PARKEAREN ETA SENTSIBILIZAZIO
ZENTROEN SUSTAPENA ETA
DINAMIZAZIOA**

Ibaiekin edo beste gai batzuekin lotuta –edukiak egoki jotzen direnean–, Ibai Parkearen inguruan egin beharreko jarduerak sustatzea eta horietan laguntzea:

- Boluntariora-jardunaldiak.
- Natura jendarteratzeko eta ingurumen-sentsibilizazioarako jardunaldiak.
- Jolas- eta kirol-jardunaldiak.

7

Atarrabiako Pilategian eta San Andres Errotan dauden parkearen interpretazio-zentroak dinamizatzea eta haietan mantentze-lanak egitea.

8

Parkea mugikortasun iraunkorrerako eremu eta arkitekturako oztoporik gabeko gisa sustatzea:

- Parkea beste udalerrri batzuetara zabaltzea, eta oinezkoen eta bizikleten tokiko sareekin lotzea, eskualdeko sare bat sortzeko.
- Mugikortasun murriztuko pertsonak aintzat hartuta diseinatzea eta egokitzea pasealekua eta aisiarako eremuak.

9

ERREKLAMAZIOAK, IRADOKIZUNAK ETA KEXAK KUDEATZEA

Kasuen %85ean, gutxienez, beste batzuen eta tokiko erakundeen erreklamazioei, iradokizunei eta/edo kexei hamar eguneko epe maximoan erantzutea.

Herritarren Arretarako Zerbitzua

Navas de Tolosa kalea, 29, behealdea

NEGUKO ORDUTEGIA

astelehena eta ostirala bitartean, 08:30etik 18:00etara.

UZTAIL-ABUZTUKO ORDUTEGIA

astelehena eta ostirala bitartean, 08:30etik 14:00etara.



948 423 242



www.mcp.es

Egoitza Elektronikoa

Edozein izapideri buruzko zalantzak argitzeko,
gomendatzen da aldeztu aurretik webgunean kontsultatzea
edo telefonoz deitzea, kudeaketa arintzeko eta behar ez
den joan-etorrikerik ez egiteko.



Mancomunidad
Comarca de Pamplona
Iruñerriko
Mankomunitatea

Servicios de la
Comarca de Pamplona s.a.
Iruñerriko
Zerbitzuak e.a.